EROSKIK SUPERMERKATU BERRI BAT INAUGURATU DU ERANDION, BIZKAIAN

- **Establezimendu berriak elikagai freskoen sorta espezializatua eskaintzen du, eta tokiko produktuen aldeko apustua egiten du.**
- **864 metro koadroko salmenta-aretoa du, eta 22 pertsonaz osatutako langile taldea dauka.**
- **EROSKIk Euskal Autonomia Erkidegoko 367 hornitzaile ingururekin lankidetzan jarduten du, 503 milioi euroko erosketa-bolumenarekin, eta eskualdeko 7.991 produktu inguru merkaturatzen ditu.**

Bizkaia, 2026ko azaroaren 12.- EROSKIk supermerkatu berri bat ireki du Erandion (Bizkaia), Antonio Trueba kaleko 2. zenbakian. EROSKI Center markaren pean jarduten duen establezimenduak 864 metro koadroko salmenta-aretoa du.

Gaur goizean, irekierara bertaratu dira Aitziber Oliban Gutiérrez, Erandioko alkate andrea; Arantza Rebolleda Pérez, Erandioko Udaleko Hirigintza, Klima Aldaketa, Ingurumen eta HAPOren garapeneko zinegotzia; eta Alberto Madariaga, EROSKIko Supermerkatu eta Prozesuetako zuzendaria. Hirurek establezimendu berriaren instalazioak ezagutu dituzte, EROSKIko beste ordezkari batzuekin batera.

Irekiera honek 22 lanpostu sortu ditu. Langile taldeak 2.637 ordu jaso ditu prestakuntzan, bezeroei irtenbide hobeak eskaintzeko eta dendan lan egiten duten profesional-taldeen autogestioan sakontzeko.

Aurrezkiaren aldeko apustuak EROSKI Club programan du adierazpenik gorena; bezero-bazkideei zuzendutako fidelizazio-programa honek promozio oso erakargarriak eskaintzen ditu, baita Travel Club programaren abantaila guztiak ere, eta Bizkaian 465.500 bazkide baino gehiago ditu.

Tokiko produktu freskoek protagonismo handia dute

«Erandion irekitzen dugun denda berria euskal tokiko produktuaren ordezkaritza zabalaz hornituko da. Ez da soilik erakunde gisa dugun nortasun-ezaugarrietako bat; gure bezeroentzat ere erakargarritasun handia du», adierazi du Alberto Madariagak, EROSKIko Supermerkatu eta Prozesuetako zuzendariak.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950

EROSKIk Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien 367 ekoizle txiki baino gehiagorekin lankidetzan jarduten du, eta haien produktuek leku nabarmenak dituzte dendetako sail guztietan. EROSKIren merkataritza-politikak ahalik eta gehien indartzen ditu tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortuz eta nekazaritzako elikagaien, ekonomia- eta gizarte-garapenari lagunduz. Eredu horrek oso askotarikoa den ekoizpen-ehuna bultzatzen du, sektorearen iraunkortasunerako funtsezko elementu gisa.

EROSKIren nortasun-ezaugarrien artean, bezeroari arreta pertsonalizatua eskaintzeko apustua ere nabarmentzen da, harategi eta urdaitegi sailetan mostradoreak gehituz.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere badute lekua supermerkatu berrian, elikadura-joera berri guztiak biltzen dituzten espazioekin. Horretaz gainera, sail hau osatzen dute elikagai-intolerantziei (glutena, laktosa, etab.) zuzendutako produktu espezifikoen sorta zabalak, edo koipe, azukre edo gatz gutxiko elikadurarako egokiak diren produktuek.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Halaber, ingurumenaren aldetik iraunkorragoa den establezimendua da. Denda-eredu berri honek hobekuntzak ditu klimatizazioan, hotz industrialaren sorreran eta argiztapenean. Hala, hozgarri eraginkorragoak eta kutsadura gutxiagokoak erabiltzea, hotz-altzariak ixtea eta LED argiztapena erabiltzea dira establezimenduaren ingurumen-eragina minimizatzeko aplikatutako berrikuntzetako batzuk soilik, eta, gainera, bezeroentzat argi eta tenperatura atseginagoak lortzen laguntzen dute. EROSKIren belaunaldi berriko dendak ekoefizienteagoak dira, eta energia-eraginkortasuneko neurriak ezartzen dituzte, supermerkatu konbentzional batekin alderatuta energia-kontsumoa murrizteko.

EROSKI Euskal Autonomia Erkidegoan

Oro har, EROSKIk Euskal Autonomia Erkidegoko 367 enpresa kolaboratzaile ingururekin lan egiten du, 503 milioi euroko erosketa-bolumenarekin, eta eskualdeko 7.991 produktu inguru merkaturatzen ditu. 2025aren amaieran, EROSKIren sare komertzialak 352 establezimendu ditu erkidegoan, elikadura-dendak eta gasolindegiak batuta, eta, horrez gain, online supermerkatua.

EROSKIri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian, eta buruzagikide (kolider)

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián
Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta
Tel: 917 379 950

da Balearretan. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzial omnikanalean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300 baino gehiago, berriz, bazkide eta jabe dira.

EROSKI - Komunikazio Korporatiboko arduraduna
Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO - Prentsa bulegoa
Silvia Peralta

Tel: 917 379 950